# NOR IZAN NAHI ZENUKE?

Testua eta irudiak: ARIANNA PAPINI

Itzulpena: FERNANDO REY ESCALERA

Kartoi gogorreko azala. 30 x 22 cm. 40 or. 16,50 €

FINALISTA NAZIOARTEKO IV. “COMPOSTELA” SARIAN
FINALISTA ANDERSEN SARIAN (Italia) 2011
PROGRAMA NATTI PER LEGGERE (Italia) 2015

**Nor izan nahi zenuke?** (euskara)
ISBN 978-84-9172-234-2. Album irudidunak. Egile-lanak.

**¿Qué te gustaría ser?** (gaztelania)
ISBN 978-84-92608-43-0. Álbum ilustrado. Obras de autor/a.

**Que che gustaría ser?** (galegoa)
ISBN 978-84-8464-770-6. Álbum ilustrado. Demademora.

**Què t’agradaria ser?** (katalana)
ISBN 978-84-18558-20-7. Àlbum il·lustrat. Obres d’autor.

**O que gostarias de ser?** (portugesa)
ISBN 978-989-749-148-1. Álbum ilustrado. Obras de autor/a.

**Chi vorresti essere?** (italiera)
ISBN 978-84-1343-080-5. Albo illustrato. Gli albi di autore.

**What would you like to be?** (ingelesa)
ISBN 978-84-8464-772-0. Picture books. Books for dreaming.

*Rebeka, nor izan nahi zenuke?*
*Arraina izan nahiko nuke isiltasuna entzuteko*
*eta itsasoan libre egiteko igeri.*
*Arraina, nor izan nahi zenuke?*

«Nor izan nahi zenuke?» irakurle gazte-gaztentzako album bat da, narrazio-egitura errepikakorra duena oinarria, aurrekoari lotutako pertsonaiak gehituz. Rebekak arrain izatea du amets; arrainak hontza izan nahi luke; hontzak krokodiloa miresten du, eta horrela, bata betearen atzetik, etxeko animaliekin edo animalia basatiekin, bukaera zirkularra izan arte. Horri esker, irakurleak jakinduriaz betetako irakaspena jasoko du: irudimenari esker, zer nahi, eta huraxe izaten ahal gara.

Arianna Papiniren kontakizunaren planteamendua soila da, eta irudi lau eta eskematikoak ditu lagun, collagearen teknikarekin egindako kolore eta testurak papereratuz.

Emaitza irakurgai eder eta osoa da. Orrialdeek arrastoak uzten dizkigu ikusmenaren bidez sormen-josteta honetan parte har dezagun. Bi pertsonaiaren bat-egite fantastikoari esker, izaki hibridoak sortzen dira: arrain hankaduna, arrain-hegalak dituen hontz bat, krokodilo hegalduna... Animalia berezien sail bat, liburuko orrialdeez haratago ere handitzen ahal duguna.




■ **Gaia:** irudimena eta ametsak.
■ **Adin egokia:** 5 urtetik aurrera.
■ **Nabarmentzekoak:** finalista Nazioarteko IV. Compostela Sarian; pertsonaia; kateatuak, egitura errepikakorra; etxeko animaliak eta basatiak; animalia hibridoak sortzeko josteta; «¿Quién falta?» eta «Ser amigos» ipuinen egile bera; KALANDRAKA TV: https://kalandraka.tv/videos/arianna-papini/
■ **Liburuaren aurrerapena:** https://issuu.com/kalandraka.com/docs/nor-izan-nahi-zenuke-eusk

## Arianna Papini

(Florentzia, 1965)

Artea eta Arkitektura ikasi zuen. 1988az geroztik, Fatatrac argitaletxean ari da lanean. Irakasle ibili da Florentziako Arkitektura Fakultatean. Josteta-liburuaren diseinuari buruzko ikerketak egin ditu. Hainbat ikastarotan hartu du parte: Florentziako Lizeo Artistikoan, Milango Irudigileen Elkartean eta beste kultur talde batzuetan. Ogibidez, idazlea, irudigilea eta margolaria da. Haurren irakurzaletasuna bultzatzeko jarduerak egiten ditu, baita lantegi artistikoak ere eskoletan eta liburutegietan. Argitaletxean, dozenakoa liburu atereak ditu. Zenbait sari jasoa dago: Ilustraziorako Andersen Saria (2018), Silent Book Contest (2017), Premio delle Palme eta Premio Nacional Libro per l’Ambiente, besteak beste. «Nor izan nahi zenuke?» obrarekin, finalista izan zen Nazioarteko IV. “Compostela” Sarian. Gainera, IBBY erakusketarako aukeratu zuten 2011n.
http://www.ariannapapini.com





www.Kalandraka.com
comunicacion@kalandraka.com

www.Pamiela etxea.com
soltxate@pamiela.com